

1991-01-13 / 91. alea

elgoi**BARREN**  
Nafarroa enparantza 2  
☎ 74 41 12

**ARGITARATZAILEA:**  
Elgoibarko Izarra.

**LAGUNTZAILEA:**  
Elgoibarko Udala.

**ZUZENDARIA:**  
Alberto Agirreazaldegi.

**HIZKUNTZA ARDURADUNA:**  
Anjel Ugarteburu.

**ERREDAKZIO KONTSEILUA:**  
Iñaki Arrieta, Antton Bergara,  
Eduarne Bilbao, Rosa Iriondo,  
Jose Inazio Sarasua.

**KAZETARIAK:**  
Ainhoa Lodoso,  
Jasone Osoro.

**MAKETATZAILEAK:**  
Maite Rementeria,  
Edu Sanz.

**PUBLIZITATEA:**  
Nekane Etxaniz.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Josune Fernandez,  
M. Angeles Ortuoste.

**KOLABORATZAILEAK:**  
Itziar Agirregomezkorta, Ana  
Aizpiri, Pello Aizpurua, Gotzon  
Arrieta, Pello Arrieta, Belen  
Arrizabalaga, Jon Barandiaran,  
Mikel Cornejo, Asier Etxaniz, Felix  
Etxeberria, Itziar Fernandez, Koldo  
Galdona, Jose Mari Galdos, Ina  
Garagarza, Gotzon Garate,  
Joseba Gorosabel, Xabier Gorriti,  
Alfonso Guilló, Maite Iriondo,  
KOKOE, Eduarne Korta, Enrike  
Larrañaga, Imanol Larrañaga,  
Nerea Lodoso, Jesus Mari  
Makazaga, Iñaki Odriozola, Jose  
Inazio Sarasua, Olga Unzilla,  
Miryam Villasante, Aitor Zabaleta,  
Yulen Zabaleta.

**BANAKETA ARDURADUNA:**  
Imanol Larrañaga

**INPRIMATEGIA:**  
Gertu koop. E.  
(Zubillaga Oñati)

**TIRADA:** 3.300 ale

**LEGE GORDAILUA:** SS-1.038/92  
**ISSN:** 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere  
gain hartzen aldizkarian  
adierazitako esanen eta  
iritzien erantzunkizunik.



## Droga lege barruan sartu ala ez

**D**roga da gure egunotako izurri berria. Gure gazte denboran ezagutzen ez zen gaizpidea. Armiarma izugarri handi batek bezala drogak bere amarauna mundu guztira zabaldu du. Ia ez dago naziorik izurri honek jendea kutsatu eta hondatu ez duenik.

Hiri askotan egunero egiten diren gaiztakerietatik %80 drogari lotuak daude. Drogaren inguruan mafiak daude, hilketak, emagaldukeriak, dirugarbitze zikinak, ustelkeria.

Drogazaleak, berriz, drogaren bidea hartuz gero, bere burua alperrik galdu ez ezik, bere familia hondatzen du, lapurretan hasten da, zorigaitzaren bidetik erabat jotzen du. Neskatxa baldin bada, diruaren beharrez bere gorputza salduko du. Ez gutxik HIESa atzemango dute.

New Yorken urtero udabidean drogaren kaltea ondo ondotik ikusteko aukera izaten dut. Gu bizi garen "Washington Heights" auzunea, Upper Manhattanen (Manhattan goialdean) omen da droga kontuetan munduko ospetsuenetako bat. New Jerseyko kasinoretatik, Atlantic Citytik eta abarretatik, etengabe etortzen dira gure auzora droga erostera, kasinoretan baino merkeago baita.

Gauze gure leiho azpian droga saltzaileek tiroka garbitzen dituzte beren eztabaida, haserre eta gorabeherak, Western filmeetan bezala. Estatistikek diotenez, gure auzoan izaten omen dira munduko hilketarik gehienak. Ia denak drogak eraginda.

Polizia orain arte, drogaren izurria sendatzen ahalegindu da. Ez da ikusten gauza handirik lortu duenik. Alde batetik, harrapatzen

duen droga saltzen denaren zati txiki bat besterik ez da. Bestetik, droga saltzaile bat harrapatu eta berehala sortzen da haren ordekoa.

Drogak, galerazita dagoenez gero, irabazi harrigarriak ekartzen ditu. Urtero urtero bilioi eta bilioi dolarrak. Mafiak eta "cartel"ek ongi dakite hori. Armiamak mundu osoan xurgatzen du odola.

Ez ote litzateke hobe droga legeztatzea? Zigorren bidez ez da konponbiderik. Legez-tatuz gero droga hedatu egingo litzatekeela diote batzuek. Horixe esaten zuten Estatu Batuetan 30. hamarkadan alkohol edariak debekatu zituztenean. Debekatu egin zuten eta gauzak askoz gaizkiago. Filmeetan orduko giroa ikusi izan dugu: mafia, borrokak, erasoak, edariak prestatzeko etxe izkutuak...


Marihuana legeztatu egin behar dela gero eta gehiagok diote. Beste drogak zergatik ez? Droga lege barruan sartuz gero, mafiak iraungiko lirarteke, HIESa gutxitu, hilketak kendu, hondamendia baztertu.

Nor nor izan behar da gaizkia ala ona aukeratzeko. Ez gara haur txikiak. Droga hartzen duenak badaki zer ondorio izango dituen. Alkoholak drogak baino kalte gehiago egiten du mundu zabalean eta Euskal Herrian ere bai. Nori bururatzen zaio gure egunotan alkohola galeraztea?

Legeztatzearen kontra ipintzen diren maratilak uste hutsak dira. Hura eta hau gertatuko omen litzateke. Debekuaren eta polizia- ren bidez ezer gutxi lortu dugula, ordea, agerian dago. Izurri berria ez da zigor ukaldiz sendatuko.

**Gotzon Garate**

*Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak, Foru  
Aldundiak eta  
Elgoibarko Udalak  
diruz lagundutako  
aldizkaria*





## GALDERAK

Gai berdinari buruzko honako hiru galdera hauek heldu dira BARRENeke erredakziora aste honetan. Erantzunak Txankakua Merkatari Elkarteko presidentek eman dizkigu:

- Zergatik inguruko herrietan baino beranduago hasten dira hemen beherapenak? - “Gipuzkoa mailan irizpideak bateratzeko asmoa bazegoen ere, azkenean ez zen posible izan herri batzuetan elkarerik ez dagoelako. Elgoibarren beherapenak hilaren 9tik aurrera jartzea erabaki zen, baita Arrasaten eta Zumarragan ere.”
- Beharrezkoa al da eskaparatea aldatzea beherapenentarako? - “Eskaparatea ez dago zertan aldatu beharrik, baina bai da beharrezkoa haserako prezioa eta merketutakoa jartzea”.
- Ez al da bezeroekiko arreta falta beherapenen hasera eguna ez errespetatzea? - “Orokorrean errespetatu direla uste dugu. Ezarritako datatik aurrera norberak nahi duenean jar ditzake beherapenak.”



## KEXAK

Gazte batek deitu digu Udal funtzionarioren batek Udaletxeko kotxeren bat lanorduetatik kanpo eta bere behar partikularretarako erabiltzen duen susmoa edo errezeloa daukalako. Hau egia den ala ez jakin nahiko luke.

## ESKUTITZAK

### Euskararen normalkuntzaren prozesuari trabak Elgoibarren

**B**ada urte t'erdi Siadecok euskarari buruzko ikerketa burutu zuela Elgoibarren. Bertan Elgoibarren euskararen normalkuntzarako pausuak markatzen ziren, lehenetsunak argiro azalduz.

Hiru dira azken hilabete hauetan jorratu diren gaiak, Siadecoren lehenetsunetako taulari jarraituz:

- Beren hizkuntz eskakizuna gainditu duten Udaleko langileak lanean aritzeko prestakuntzan lagunduko duen trebatzailearen figura.

- Umeen eta gazteen munduan eragiteko Elgoibarko Izarrak aurkezturiko hiru urterako Plangintza.

- Elgoibarko Elkarte eta Erakundeetan euskararen erabilera suspertzeko Elgoibarko Izarrak burututako Plangintza.

Une honetan hiru proiektuak airean daude, PNVk horrela nahi duelako. Trebatzailearen kasuan, hainbat hilabeteetan Udaleko Euskara Batzordean hitz egin ondoren, PNVk gaia atzeratzea erabaki du. Beste bien kasuan, datorren urtean hasteko direlarik, erantzunaren zain gaude, PNVk

noiz eta zer erantzungo zain.

Siadecoren ikerketak herriari ia lau milioi pta kostatu zitzaizkion. Herri Batasuna ez dago prest Siadecok egindako lana apalean utzi eta “beste momentu hobeago batean” burutzeko. Euskarak aurrera pausuak behar dituelako eta ez oztopoak.

### Elgoibarko Herri Batasuna

### Eskerrak herritar guztioi

**S**an Lazaro egoitzako zuzendaritza batzordeak, elkartearen eta bertan bizi diren guztien izenean, Gabon jaietan eta San Lazaroko nagusiei egindako omenaldi astean, lagun izan zaituztegun herriko pertsona, denda eta elkarte guztien laguntza eskertu nahi du lerro hauen bitartez.

Eskerrak guztioi, bihotzez, horren egun politak igarotzen lagundu diguzuelako.

### San Lazaroko zuzendaritza

## HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK





AZPILIKUETA

**A**ste honetako erretratua **Maite Vallejok** laga digu. Ziur jakiterik izan ez badugu ere, erretratua 1970. urtearen bueltan ateratakoa izan daiteke.

Sasoi hartan Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak, San Antonetan, urtero jaialdi bat antolatzen zuen. Odeon antzoki desagertuan izaten zen. Bertan, besteak beste, balleta, dantzak, antzerkia eta txistulariak

izaten ziren.

Erretratuan Antonio Azpiazuren aginduetara jarduten zuten txistulari batzuk ikus ditzakegu. Zeintzuk diren?

Ezkerretik hasita: **Txomin Mujika, Jon Arrieta, Josu Mujika, Joseba Goikolea, Jone Garcia, Margarita Castrillejo, Arrate Argarate, Anton Azpiazu, J.I. Sarasua eta Iñaki Goñi.**

Txistularien zuzendaria: **Antonio Azpiazu (†)**.



*Bitsidenda* San Frantzisko 26. ☎ 74

Eskerrak eman nahi dizkizuegu urtean zehar lagun izan zaituztegunoi eta batez ere

## Zenbaki Sarituak

1. zenbaki saritua **Serie B 2098**
2. zenbaki saritua **Serie C 2972**
2. zbk.ren erreserba **Serie A 1818**

*Zorionak!*

# TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38



*Eskulanean  
saiatzen gara  
Pastelak  
Tartak  
Izozkiak  
Bonboiak*

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

# GURASO ESKOLA:

## Gurasoak hezi seme alabak hezi ditzaten

Kultur Etxean hainbat guraso elkartzen dira hilean pare bat aldiz; bertan Guraso Eskola deitzen dena kokatzen da azaroan hasi eta maiatza bitartean. Iazko esperientziak izan zuen arrakasta ikusita, aurten errepikatzea pentsatu dute. 90 guraso inguru dago guztira, lau talde ezberdinetan banatuak, gehienek 6., 7. eta 8. mailan dauzkate seme-alabak. Eskolaren helburu nagusia gurasoen eta seme-alaben arteko erlazioak lantzea eta hobetzea da.

**H**EZITZEN taldearen esku dago Guraso Eskola. Bertako kide diren Amagoia Zaballak eta Rosa Ugaldek ematen dituzte klaseak. Guztira sei gai landuko dituzte eta hasteko, "hezitzeko beldur-raren aurrean heziketa erdua" aukeratu zuten. Hila-bete honetan, berriz, "baloreen transmisioa" izan da jorratu duten gaia eta ondoren "komunikazioari kasurik egiten ez zaionean", "zer gertatzen zaie gure seme-



■ ■ 90 pertsona daude Guraso Eskolan, lau taldetan banatuak.

alabei", "zer egin daiteke errealtate horretan" eta "Guraso Eskola Elgoibarren" landuko dira. Honela, seme-alabek keinu bidez igortzen dituzten komunikazioa nola ulertu azaltzen da, beraien kezkek zeintzu diren ikusten eta arazoan aurrean zer egin daitekeen agertzen. Aurten gurasoen autoestima landu nahi dute beste gai guztien gainetik, hor oinarritzen baita gairik garrantziko arazoaren arrazoia. Gurasoak beraien buruarekin ondo sentitzen badira, askoz hobeto ulertu eta lagunduko diete seme-alabei. Haurrek autoestima baxua dute, segurantzaz eza, gizartearen aurrean txiki sentitzen dira, galduak

gizarte konpetitibo batean... Amagoiak eta Rosak adierazi digutenez, "zikinkeria guztiaren aurrean topo egiten dute derrepentean eta hor demaseko krisia sortzen da, eta arazoak. Guzti horrek bakardadea sortzen du eta garrantzitsua da gurasoen laguntza."

### **Moldeak apurtzen**

Teoria, aurkezpen modura erabiltzen da baina praktikan lantzen dituzte gairik garrantzitsuenak. Talde dinamika asko erabiltzen dute, hau da, gurasoen parte hartze zuzena. "Moldeak apurtzen" dituzte, nolabait esateko. Metodologia berria da eta jende asko harritu egiten da ez baitago ohitua honelako gauzetara. Lehen eguna



**"Aurten gurasoen autoestima lantzea da oinarria."**



## ■ ROSA UGALDE ■■■■■■■■■■ HEZITZEN taldeko gizarte hezitzailea

### "Arazo generazionalak beti izango dira"

#### ■ Zer da HEZITZEN?

■ Haurrarekin zerikusia duten gaiak jorratzen ditugu, bai prebentzioan bai eta interbentzioan ere. Arazoak ematen diren kasuetan, interbentzio programa lantzen dugu, familia lana, terapia... Bestalde prebentzioa dago eta hori da, nolabait, Elgoibarren Guraso Eskolarekin egiten ari garena. Arazo horiek eman ez daitezzen nola jokatu behar den, zer egin daitekeen.

#### ■ Gehienak emakumeak dira. Heziketa beraien esku dago oraindik?

■ Gizon gutxi dago, guztira zazpi bat. Argi ikusten da heziketa gaur egun oraindik ere emakumeen

esku dagoela, nahiz eta hauek etxetik kanpo ere lan egin, gizezkoek bezala. Emakume taldearekin hilean bi aldiz elkartzen gara, mistoekin, berriz, behin.

#### ■ Zergatik hori?

■ Emakumez osaturiko taldeetan bestelako kezak daudela ikusi genuen iaz. Beraien eginkizuna etxeko ardura eta seme-alaben heziketa da eta beste pertsona batzuekin erlazioatzeko beharra daukate, gai ezberdinez hitz egiteko... Pentsatu genuen onuragarria izango zela mantsoago lan-tzea dena, sakontasun handiz...

#### ■ Aurtengo oinarria gurasoen autoestima da.



■ Bai, beraien burua ezagutzea eta euren zalantzei eta inseguritateei aurre eginez beraien seme-alabei transmititzea baloreak, ideiak, sentimenduak... Oso garrantzitsua da nork bere burua ezagutzea, nor den, zer nahi duen, zer nahi duen beraren semeen heziketan... Gurasoak pertsonak dira lehenbizi, pertsona ez dena ezin guraso izan. Gurasoak pertsona moduan hezi behar ditugu, gero beraiek beraien seme alabak hezi ditzaten.

#### ■ Nabari al da aldaketarik egungo guraso gazteengan?

■ Arazo generazionalak beti izan dira eta izango dira, nik uste oraindik ere guraso gazte hauek beraien gurasoek eman zieten heziketaren tintea badaukatela, ezin leike erabat puskatu. Halere lehen baino gehiago saiatzen dira, batez ere konturatu direlako komunikazio horren falta sentitu dutela. Halere, oso zaila egiten zaie, ez dakite nola egin. Beldur dira seme alabek gehiegi ezagutuz gero ez ote duten eurenganako errespeturik galduko, ez ote duten beraien guraso papera ondo beteko.

nahikoa txokantea izaten da askorentzat, Guraso Eskolaz duten ideia bertara joan, jarri eta entzutea baita eta ez, inondik inora, esperientziak kontatu eta parte hartzea. Horregatik, esan digutenez, "badira beldurtu eta gehiago agertzen ez direnak". Guraso Eskolan gai asko kuestionatzen dira eta kritiko izaten irakasten zaie. Amagoiaren esanetan, "heziketa barrutik kanpora atera behar da, hemen ez dugu errezeta magikorik ematen, norberak hausnarketaren bidez atera behar ditu bere ondorioak, bere buruari galdetuz eta kuestionatuz, askotan erantzunak barruan baitaude". Guraso eta seme-alaben

● ● ● ● ● ●  
**"Ez dago errezeta majikorik. Norberak atera behar ditu ondorioak."**  
● ● ● ● ● ●

arteko harremanetan zein arazo sor daitezkeen ikusi eta horiek gerta ez daitezzen zer egin daitezkeen aztertzen da. Halere, Hezitzen taldearen funtzioa ez da pautazehatz batzuk ematea, "denek daukate hitza, gure hitza ez da bakarra ez eta unibertsala ere, ez da Jainkoaren hitza. Norberak ikusi behar du nola jokatu behar duen. Erantzunak taldean ematea nahi ditugu, gu moderatzaileak gara eta batzutan probokatzaileak, partehartze zuzena bultzatuz".

Gurasoen kezkarik handiena gaur egun eta Elgoibarren alkohola eta drogak dira, bai eta ikasketetan porrot egitea, frakaso eskolarra, alegia. Arazo oroko-

rrak izanik ere, kasu bakoitza ezberdina da eta hori aztertu behar da gero irtenbidea topatzeko, bai eta prebentzio modura ere.

#### Komunikazioa

Ez omen dago garrantzarik, inork ez daki nolako seme-alaba izango duen nahiz eta ahalik eta heziketarik onena eman. Lagunartek, eskolak eta antzekoek eragiten dute era batera edo bestera baina, hala ere, "gurasoak sentitzen dira erresponsabilitate guztiaren jabe eta gauzak okertuz gero, errua beraiena dela uste dute. Horra hor belduraren zergatia". Behar beharrezkoa da komunikazioa eta elkarriketa, konfiantza eta errespetua.

## ASTE HONETAN

# Deskontuak, beherapenak, merkeagoak... Beherapenetan al gaude?

**A**zken urteotan bezero askok honako galdera hau egin izan diote sarritan beren buruari, eta arrazoi guztiarekin, gainera: beherapenetan al gaude? Gaur erositako artikulua, beherapenetan jarriko ote dute datorren astean?

Merkatariaren errurik handiena beherapenak hasteko egunean adostasunik ez lortzea izan da, bezeroa desorientatuz. Izan dela diot, itxura denez, ados jartzeko lehen urratsak eman baitira. Edozein gaitan serioa izatea funtsezkoa dela deritzot, eta merkataria horren adierazgarri izan behar dugu. Bezeroak gudan konfidantza izatea nahi badugu, seriotasunez eta begirunez tratatu behar dugu.

Denden ugaltzeak, komertzio handien konpetentzia izugarriak eta, sarritan, merkatariei onik egiten ez digun giroak beldurra eragin du merkatarion artean. Hori dela eta garaia baino lehen beherapenak jartzen dira, bezeroen zein merkatarien kalterako.

Zorionez, merkatarion pentsakera aldatzen ari da. Elkarren arteko konfidantza sendotzen ari da eta elkartzeko eta batzeko joera gero eta nabariagoa da. Adibide modura hor daukagu Txankakua Merkatarien Elkarte. Herriko 80 merkataria eta zerbitzu ezberdin biltzen dituen elkartearen barruan gaudenak ahozko hitzarmen baten bidez, data jakin batetik aurrera beherapenak hasteko erabakia hartu genuen, bakoitzak nahi duenean has ditzan, beti ere, data horretatik aurrera. Elgoibarren ezezik, Euskal Herriko beste hainbat udalerritan ere egiten ari den zerbitzu izateak garrantzia ematen dio ekimen honi.

Zerk bultzatu gaitu irtenbideak topatzera? Garaia kontuan hartu gabe artikulua merketzen dituen merkataria, bere ekonomia arriskuan jartzen du eta sinesgarritasuna kolokan geratzen da bezeroen aurrean.

Bezeroa, bere aldetik, asaldatu egiten da artikulua bat egun batzuk berandago eta aurretik abisatu gabe, merkeago jarri dutela ikusten duelako, eta logikoki, engainatua sentitzen da. Merkeago erosten duena ere, ez da batera seguru sentitzen, jakin badakielako beste batean berari toka dakiokela gehiago ordaintzea.

Bezeroek badakite noiz eta nola erosi behar duten, merkealdiak errespetatzen ez dutenen propagandak ez ditu engainatzen, sasoko artikulua merketu beharrean, espreski merkealdietarako lortutako artikulua salduz eta askotan beherapen iragarriak eginez.

Bezeroengan pentsatuz, eta denon onerako izango delakoan, merkataria elkarrizketaren bidea aukeratu dugu, kontsumitzaileak aproposa iruditzen zaion garaian, erosteko eskubidea erabili dezan, beti ere, denboraldiko artikuluei irteera emateko merkataria duen "formula" bakar horrek, artikulua prezio hobean eskuratzeko aukera ematen diola kontuan hartuz.

(Erredakzioan itzulia)



AINTZANE GARATE



San Frantzisko, 4  
Tel. 74 07 35



magu's  
ILEAPAINDEGIA  
EDERGINTZA  
San Roke 6 behea tel. 74 34 91



MALAPE



MIREN  
arraindegia  
Santa Ana  
74 34 49  
ELGOIBAR



Ontueta  
ZAPATAK  
ETA  
POLTSAK  
San Frantzisko 2 - ☎ 74 04 95 - ELGOIBAR



MEKANOSA  
Errosario 30  
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## Beharapenen zain egoten al zara erosteko?



### **LUISA GOMEZ**

**25 urte, administraria**

Normalean bai, batez ere abrigoa edo... gauza garestiak direnean. Aurten gauza gehienak erosi ditut dagoeneko baina ziur "pikatuko" dudala.



### **MANUELA MOCHALES**

**40 urte, etxekoandrea**

Ez, sasoiaren erosten dut baina beharpenak tentagarriak dira eta ia beti erosten dut zerbait. Herriko beharpenak nahikoa onak izaten dira.



### **BELÉN ALBIZU**

**31 urte, etxekoandrea**

Bai, generalian bai, semien errobia erosteko batez ere. Dagoeneko ibili naiz errebajetan herrixan bertan eta erosi ditzut erosi biharreko guztiak.



### **PEDRO JORGE**

**28 urte, administraria**

Generalian bai. Erropia erosteko normalian, ze nahiko onak izaten dira; hala ere azkar ibili bihar da, gero gastau itxen dialako tailak eta.



### **CARLOS TABIRA**

**23 urte, langabetua**

Bai, normalean bai, emaztea ni baino gehiago. Zerbait beharrez gero mementuan erosten duzu; hala ere dirurik ez dago beharpenetarako ere.



### **M. ASUNCION GANDIAGA**

**36 urte, etxeko langilea**


Ez, falta itxen dianian erosten dot. Errebajeri ez diet kasurik itxen baina zeozer politxa ikusten badot, gustatzen jatana, erosten dot, ostian ez.

**ASESORIA  
GOIAR**

**AHOLKULARITZA**

- . KONTABILITATEA
- . AHOLKULARITZA FISKALA
- . LAN AHOLKULARITZA
- . ALLIANZ ERCOS ASEGURUAk
- . MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUAk

San Bartolome 1 behea. Tel: 74 26 74- 74 02 34. Fax: 74 21 29





## ■ AEKren zozketa

AEK euskaltegiak ONCE elkartearekin batera abenduaren 21ean egindako zozketan, 54.656 zenbakia atera zen saritua. Hilero eta urte osoan zehar 150.000 ptako dirua zen zozketaren saria, eta zorteduna donostiar bat izan da. Lerro hauen bitartez Elgoibarko AEKk eskerrak eman nahi dizkie saltzen eta erosten lagundu duten guztiei.

## ■ Elizako obrei buruzko argazki erakusketa

Gaurtik aurrera, hilak 13, San Anton egunera arte, parrokiako obrei buruzko argazki erakusketa irekita egongo da elizako arkupeetan. Obren batzordearen laguntzaz, Jesus Mari Sarasuak ateratako argazkietan obrei buruzko bilakaera ikusi ahal izango da. Erakusketa zabalik egongo da eguerdietan eta arratsaldetan.

## ■ Ikastola irabazle izan da Olentzeroen lehiaketan

Ikastolako 8. mailako ikasleek, Sebas Larrañaga eta Kristina Garcia irakasleen ardurapean, Bilbo-Behobia autopistaren gestioa daraman enpresak antolatutako Olentzeroen lehiaketan, lehen saria irabazi dute. Olentzeroa Gabonetako oporretan jarrita egon da Elgoibarko autopistako peajea. Lehiaketan aurkeztegitik 30.000 pta jaso zuten eta lehenak geratzeagatik beste 25.000 pta eta kopa. Irabazitako dirua ikasbidaiarako erabiltzeko asmoa dutela agertu digute 8. mailakoek. Bestetik, ikasbidaiarako bizikletaren zozketan, 9595 zenbakia izan da saritua. Oparia jasotzeko epea hil honen 22an bukatzen da.

## IMHk telebistarako heziketa




**E**lgoibarko Erreminta Makinaren Institutuak Heziketa Teknikoari buruzko telebista programa batean parte hartuko du Telebista Iberoamerikanoarekin elkarlanean. Erreminta Makinari zuzendutako denbora tartean kontrol numerikodun tornoan egindako piezen fabrikazioari buruzko informazioa agertuko da. Ordu erdiko 16 programetan zehar, CNC erako tornuen produkzio prozesuaren nondik norakoak ezagutzeko aukera izango dute ikasleek. Kontrol numerikoaren oinarri teorikoak azalduko dira eta kalitate kontrola fabrikazio prozesuetan ere aipatuko da. Telebistaz emandako klaseez gain, CNCari buruzko simulazio software bat izango dute ikasleek laguntza modura, eta Unibertsitateen laguntza ere izango dute. Telebista programak datozen hilabeteotan hasiko dira grabatzen eta aurren emitituko

dira Latinamerikako 11 herrialdeetan TVEko nazioarteko katetik Hispasat salitearen bitartez, eta kable bidezko telebista sare lokaletatik.

### Balioaren analisiaren promoziorako programa

Bigarren programa batean ere ari da lanean IMHa. Baionako Merkatal Kamararekin eta Nafarroako Industrien Elkartarekin batera enpresetako balioaren analisiaren promoziorako programa burutzen ari da. Programaren funtsa produktu baten oinarrikoena ahalik eta preziorik bajeanean eskaintzea litzateke. Teknologia honen bideragarritasuna frogatzeko bi programa pilotu burutzen ari da programan parte hartzen ari den erakunde bakoitza. Berau urte bukaerarako amaitzea espero dute eta beronekin batera balioaren analisisa egiteko gida bat banatuko da.



San Francisco 12-14, Tel. 74 05 49



San Bartolome 18  
☎ 74 08 49



GOSARIAK, PINTXOAK  
ETA OTARTEKOAK  
Plaza merkaturia 23-24



BOUTIQUE  
DEL PAN

Enpanada  
Baserriko ogia  
B. Ecenarro, 1 ☎ 74 33 92

## Udal hautagai euskaldunak



**E**lgoibarko Izarra Kultur Elkar-  
teak maiatzeko Udal Hautes-  
kundeetan hautagai euskaldunak  
bultzatzeko kanpainari ekin dio.  
Aste honetan bertan, Ales Arrieta  
Elkarteko presidentek eta Imanol  
Larrañaga suspertzaileak azaldu  
zuten bezala, “Alkate eta zinego-  
tzien ejemplua nahi dugu” izenbu-  
ruean, Elgoibarren euskararen  
normalizazioa lortzeko asmotan,  
“euskaraz dakiten ahalik eta alka-  
te-zinegotzi gehien egotea lortu  
nahi dugu”, beraien ustez, politi-  
koek aintzindari eta eredu izan  
behar baitute.

Dagoeneko EAJ-PNVk, HBk  
eta EAK beren oniritzia eman diote  
kanpainari eta bide horretatik ahal  
dutena egiteko prest daudela adie-  
razi zuten elkarteko ordezkariak.  
EAJko, HBko eta EAKo ordezka-

riak, azken hauek mahaian egote-  
rik izan ez bazuten ere, kanpain-  
aren aurkezpenean izan ziren, eki-  
menaren aldeko jarrera azaldu  
asmoz. Beste helburu bat hautes-  
kunde kanpainan euskarari lehen-  
tasuna ematea da. Eskakizun  
hauek komunikabideetan eta karte-  
letan argitaratuko dira hilero,  
maiatzera arte. Honela, hauteskun-  
deen aurretik, alderdi bakoitzak  
emandako informazioarekin, hau-  
tagaien zerrendak eta bakoitzaren  
euskararen ulermen eta mintzamen  
maila ezagutzera emango dira.  
Hauteskunde ondoan, hautatu-  
takoan izen-abizenak eta hauen  
euskara maila argitara emango  
dira, eta alderdi bakoitzak eginda-  
ko hauteskunde kanpainako propa-  
gandari buruzko datuak ere komu-  
nikabideetan argitaratuko dira.

## ■ Zuri beltzeko argazki ikastaroa

Elgoibarko Ongarri Argazki  
Taldeak zuri-beltzeko argazki  
laborategia antolatu du datorren  
larunbaterako, hilak 21. Orduetgia  
goizeko 9etatik 1era, bazkaltzeko  
atsedenaldia, eta arratsaldean  
4etatik 8etara bitartekoa izango da.  
Izen-ematearen zenbatekoa 5.000  
ptakoa bazkide ez direnentzat eta  
2.000 ptakoa bazkideentzat.  
Prezioaren barruan sartzen da  
materialea eta bazkaria.  
Ikastarokideak eraman beharko  
duen materiale bakarra hiruzpalau  
negatibo dira, bertan positibatu  
ahal izateko. Pitxintxu dendan  
eman daiteke izena edo 74 32 06

## ■ Elgoibarko Bolo Txapelketa San Migelen

Larunbat honetan, hilak 14,  
gaueko 9etatik aurrera Elgoibarko  
I. Bolo Txapelketako bigarren  
tiraldia jokatu da. Bolatokia  
ordubete lehenago irekita egongo  
da entrenamenduetarako. Lehen  
tiraldia joan den hilean San  
Lorentzoko bolatokian izan zen eta  
bertokoez pasada ederra eman  
omen zieten gainontzeko  
bolozaleei. Dena den,  
errebantxarako betarik izango da  
San Migeleko bolatokian. Taldean  
zein banaka jardun zuten, guztira  
45 bat partehartzaile eta 5 talde.  
Hurrengo saioa San Roken izango  
da hilaren 21ean eta azkena, San  
Pedron otsailaren 11n.

## Pentsatu gabe, eman izena berehala

**DEBATE  
EUSKALTEGIEN  
MANKOMUNITATEA**  
Nafarroa plaza, 2  
☎ 74 27 31-ELGOIBAR

- Matrikula epea: urtarrilaren 18tik 31 arte
- Maila guztiak. LANGABETU ETA IKASLEENTZAT PREZIO BEREZIAK. Beka sistema.
- Informa zaitez 74 27 31 telefonoan



## ■ Helduen Heziketarako matrikula zabalik

Helduentzako Heziketarako ikasturtean izena emateko epea hil honen bukaeran zabalitzen dela jakinarazi nahi du Udal Kultur Zerbitzuak. Matrikulazioa Pedro Muguruza ikastetxean egin ahal izango da. Informazioa jasotzeko, bertako 74 08 80ra deitu.

## ■ Idaz Lehiaketan sari banaketa hilaren 18an

Elgoibarko Izarrak antolatutako Idaz Lehiaketan sari banaketaren ekitaldia hilaren 18an, asteazkena, izango da arratsaldeko 7etan Herriko Antzokian. Lehenik, bertsoen ataleko sari banaketa egingo da, jarraian "Bihar" txotxongilo taldeak emankizuna eskainiko du eta azkenik, prosa ataleko sariak banatuko dira. Lehiaketan OHOk eta hezkuntza bertainetako ikasleek hartu dute parte.

## ■ Caja Laboraleko zozketa

Joan den ostegunean, hilak 5, Elgoibarko Caja Laboral-Euskadiko Kutxak egindako 14 pulgadako SABA telebista aparailu baten zozketan 7432 zenbakia izan zen saritua. Telebista Francisco Muguruza Mendikutek irabazi du, berak baitzeukan zenbaki saritua.

## Ruandaren aldeko itzuliko



**R**uandaren alde Euskadiko Itzulia egiten ari diren bost lagun eta 22 txakurrez tiraturiko lerak (hiru erroberako bizikleta edo trizikloak) joan den asteartean Elgoibarrera iritsi ziren. Arratsaldeko 4,30ak aldera pertsona asko bildu zen Plaza Haundian Ikastolako haurrek, adibidez, trikiti, pandero eta bestelako soinu tresnak joaz eta abestuz egin zieten harrara. Julio eta Eneko Eizagirre Lizartzako anaiak, Patxi Maestro errenteriarra, Arturo Fernandez pasaiarra eta Axen Garrantano bergararrak osatzen duten taldea abenduaren 11n abiatu zen Ber-

garako plazatik 1.000 kilometro egin asmoz eta guztira 45 herri bisitatu. Urtarrilaren 11n amaitu zen bidaia Bergaran, makina bat abentura pasa eta gero euritan, eguzki epeletan bai eta elurretan ere. Elgoibarrera kotxez iritsi ziren, izan ere txakurrak gaiso baitzeuden beherakoak jota. Bost partaideek herriz herri ibili eta bertako polikiroldegi zein bestelakoetan egin dute lo, udal ezberdinen kolaborazioari esker.

Hilabetean 4 milioi pta inguru bildu dute. Elgoibarko Udalak 100.000 ptako dirulaguntza eskaini die.




DEBA KALEA 12  
TEL.: 74 42 23  
20870 ELGOIBAR

**ERREFORMAK**  
**FATXADAK ETA TEILATUAK**  
**OBRAK OROKORREAN**



**Baserriko haragietan berezia**

**Harategi Urdaitegia**  
San Bartolome, 16. ☎ 74 06 40



**Mandiola S.L. Egurrak**  
Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



**URKIOA**

San Franzisko 8 ☎ 74 02 80

# Txiki **BARREN**

O.H.O.KO IKASLEEKIN EGINDAKO 10. GEHIGARRIA



**H**orra, horra, gure Olentzero... Herri Eskolako haurtzaindegiko haurrek ondo baino hobeto kantatu ziguten egunetan zehar entsaiatzen ibili ziren Olentzero abestia. Gelak Gabon garairako egoki dekoratuak zeuden, girnalda, borla, zuhaitz eta

guzti. Gabon jaien bezpera zen BARREN bertan izan zenean. Dagoeneko, Olentzero eta Erregeak alde egin dute beraien sorterrietara, abendura arte ez ditugu berriro ikusiko. Halere, ziur haur hauek makina bat denbora pasako dutela haiek utzitako opariekin jolasean.

## **IRRI-MIRRIKA**

Aita eta semea eztabaida bizian ari dira.

- Jorge Washington, zure adinean, gelako lehenengoa zen -botatzen dio aitak semeari.
- Arrazoi duzu -erantzuten dio semeak-, eta zure adinean, Estatu Batuetako presidentea.



## Dislexia

**M**adrileko Dislexia eta Ikasteko Zailtasunen Gurasoen Elkarteak, ikasleen artean %15ak ikasteko zailtasunak dituela kalkulatu du.

Noizbait dislexia hitza entzungo zenuten, seguruen edo, agian, arazo hau duen norbait ezagutuko duzue. Baina, zer da dislexia zehazki?


Arazo honen inguruan sor daitezkeen zalantzak ahal den moduan argitu asmoz idatzi dugu artikulu hau.

Lenguaia adituek diotenez, dislexia irakurtzeko zailtasun zehatza da eta ez dago arrazoi nabarmen bat arazo honi adierazpen bat emateko. Talde honetan ez dira sartzen adimen gutxiko umeak, ikusentzuteko arazoak dituztenak edota eskolan hutsegite luzeak egin behar izan dituztenak ere.

### Dislexiaren ezaugarriak

Haurrak, irakurtzen ikasten hasten denean, huts asko egiten ditu. Denborarekin, hutsegite horiek desagertu egiten dira. Hori da prozesu logikoa. Halere, hainbat umek hutsegite asko izaten dituzte, denborarekin desagertzen ez direnak. Hauek dira dislexia kasuak, hain zuzen.

Horregatik ez da posible diagnosi



MONTSE RUBIO

AHOTS-LAN LOGOPEDIA ZENTRUKOA

bat egitea haurrak 8-9 urte izan arte, lehenago ezin baitira bereiztu irakurketan egiten diren hutsegite normalak eta dislexia kasuak.

Hutsegite hauek haseran irakurketa mailan somatu arren, gero, idazkeran eta eskolako emaitzetan ere hasten dira ematen.

### Nolakoa da ume hauen irakurketa?

Dislexia era bat baino gehiago dago. Hona hemen akats arruntenak:

- Antza duten bi hizki nahastea (p-b, s-z, m-n, a-o..).
- Soinu beretsua duten bi hizki nahastea (b-p, d-t...).
- Hizkiak jatea (gi)l(tza-giltza).
- Hizkiak gehitzea (eskubidea-k).
- Hitz barruko hizkiak lekuz aldatzea (planoa-palnoa).

Arazoa zenbat eta lehenago somatu, orduan eta hobe. Horregatik, oso garrantzitsua da gurasoek eta irakasleek edozein hutsegite edo arazo zaintzea.

Umeak dislexia izan dezakeela uste denean, eskolako psikologo-pedagogoa-rengana jotzea gomendatzen da edota, zentru pribatu batera joatea umeak klaseak jaso ditzan laguntza modura.

## Zer iritzi daukazu *politiko*.....ei buruz?



Handiak dira eta Felipe izena dute.

NEREA RODRIGUEZ. 7 urte



Politikoak beti dabiz elkarri protestatzen eta papela fastatzen dute.

ANDONI ETXABE. 9 urte.



Batzuk lapurrak dira eta denek lehendakari izan nahi dute.

INES SEGURA. 11 urte



**Karmelo Lopez**  
8 wtvg

## Galde debalde

1. Zer eskatzen diozu urte berriari?
2. Zein kolore izan nahi zenuke?
3. Zer ez dizute uzten egiten txikia zarelako?
4. Zer oparituko zenioke amari? Eta aitari?
5. Nobiorik ba al daukazu?
6. Eta nori emango zenioke musu bat?
7. Joango al zinetekela ilargira?
8. Gustatzen al zaizkizu masaia?

1. Jolasak egunero: ohe elastikoak, gaztelu puzgarriak...
2. Horia, nere kolore preferidua dalako eta eguzkixan koloria.
3. Fregaua eta neri asko gustatzen jata.
4. Zapatak eta txaketa bat.
5. Ez, mutilik ez jata gustatzen.
6. Nere amari.
7. Bai, ze han marziano berdiak ikusiko nitxuzke.
8. Bai baina neri ez didate egiten, nik egiten dizkiot nere amamaren katuari.



**Aitor Segura**  
13 wtvg

1. Pakia egotia pila bat gustatuko jatan.
2. Lila iruditzen zait kolore politxena.
3. Lagunekin beste herrixetara juten.
4. Parisera biaje erromantiko bat erregalatuko nien.
5. Bai. Aspalditik gustatzen jatan mutila da eta berakin urtetzia nahi nabari galdetu zianian segitxuan esan nion baietz.
6. Nere mutilari!
7. Bai, gustatuko jatan han zer dauan ikustia.
8. Bai, asko, besuetan, lepuan...

## Zer da... *pekatua* ?

**LIDIA BODREGUERO 7 wtvg**



"Palabrota bat da. Txikiek ezin dute esan txarra delako."

**ANDED MUJICA 10 wtvg**



"Insultatzeko hitz itsusi bat. Jesusek debekatutako hitzak. Hitz zatarra baino gehiago."

**VICTOR GALEANO 8 wtvg**



"Esan behar ez den gauza bat da zeren bestela Jesusek zigortu egiten baitzaitu. Nik zuen lekuan ez nuke palabrotarik esango."

**LAUDA SANCHEZ 12 wtvg**



"Egin behar ez den gauza bat egitea pekatua da baina batzutan ez da kontuan izaten."

**MAITANE ODIRA 9 wtvg**



"Jesusi min egiten dion gauza edo hitza."

**EGOITZ MENDIKUTE 12 wtvg**




"Munduko gauzarik txarrena da eta horrekin jendea zirikatatu eta maltratatu da."

# Denborapasak: ezetz asmatu!

## 1. Nor da elgoibartar hau?



## 2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



### JOSEBA ARRILLAGA 14 urte

"Futbolista bat, Ronald Koeman, Bartzelonakoa. Famosua izatia gustatuko jatan. Gainera diru mordo bat irabaziko naban, toki asko ezagutuko nitxuan eta telebixorako edo egunkarirako entrebistak egingo zizkidaten. Neskak ere ezagutuko nitxun eta gehixao ligatuko naban."

### SAIOA DE PEDRO 7 urte


"Oskorri taldeko kantantia. Katuen testamentua kantatuko naban herriz herri Dirua irabaziz gero gauza haundixak erosiko nitxun, muñekak ez, ze asko daukat. Baina ez jatan gustatuko famosia izatia ze jende asko gainera botako jatan eta nik ostikadak eman biharko nituen."



## 3. Asmakizunak:

- Hiru ahartetxo gara uretan igerian, bakoitza bi eta batuketaz sei. Zer da?.....
- Hankarik ez eta sigi-saga dabil, besorik ez eta zuhaitzetan kiribil. Zer da?.....
- Nire bi ahizpak biak dira langileak, baina egiteko lanak bata dut nahiago bestea da traketsago. Zer da?.....

## 4. Zein silueta dagokio txakurtxoari?



Erantzunak: 1. Benantzio Oregi! Parrokia 2. Zein pertsonai famoso izan nahi zenuke? 3. 2 zenbakia / Sugea / Eskua 4. d

**"Irratiz hitzegitean entzulearen aurpegia imajinatzen dut"**

Ez zen Elgoibarren jaio Logroñon baizik. Errioxako herri hartatik hiru urte zituela Elgoibarrera etorri zen. Ikasketak Leioan burutu zituen. Hiru urte 1/2 daramatza Donostian eta jadanik bertan du bere bizitza finkaturik. Euskadi

Gazteako partaideetako bat dugu Susana eta beste saio batzuetan ere izan dugu: Ikimilikiliklip musika saioan, telebistako bideo klip saio batean... Gaur egun 23 urte ditu eta oso pozik sentitzen da daraman bizitzarekin.

**-Nolatan Euskadi Gaztean?**

- Irratian anuntzio bat entzun eta karta bat bidaltzea pentsatu nuen, lan hartarako balio nuela esanez. Proba bat egin eta berehala hartu ninduten. Irratiko neska bati telebistako postua eman zioten, niri irratikoa. Oraindik lanean nago.

**- Kontaiguzu zure sekretua helburuak lortzeko.**

- Aurpegi haundixa eukitzea. Ridikuloa egiteko beldurrik ez eukitzea. Beti aurrera begiratzea. Ate guztiak jo eta txapa eman zerbait lortu arte. Nire kasuan, lehenengo atea irratia izan zen eta handik aurrera, dena: telebista...

**- Zeintzuk dira zure proiektuak?**

- Irratia izugarri gustatzen zait, telebista ere probatu det baina nahiago dut irratia. Egunen batean, kasualitatez, lan gabe geratuko banintz, ikasten jarraituko nuke, master bat egingo nuke Estatu Batuetan.

**- Zergatik euskara aldaketak?**

- Elgoibarren, ez ditugu "s"ak eta "z"ak bereizten. Komunikabide batera joatean, eta batez ere publikoa bada, konturatu



**"Jende askok que se me han subido los humos dio, baina nire ustez inbidia da."**

behar zara Euskal Herri osoak entzuten zaituela. Guztiz funtsezkoa da euskara batua, eta nik gau eta egun pasatu behar izan nuen "s" eta "z"ren arteko bereizketa euskara batura moldatzen. Entonazioa ere berezia da; beraiek behartzen gaituzte alaiak, freskoak... izaten.

**- Euskadi Gaztean aurkezle arrakastatsua izateko "klabeak":**

- Sintzeroa izatea, eta entzulea zure parean tratzea, hau da, ez pentsatzea entzulea haur bat denik. Nik, Euskal Herri guztiari

beharrean, pertsona bakar bati zuzentzen natzaio, pertsona ezezagun horren aurpegia imajinatzen dudalarik.

**- Susanaren "punto fuerteak" eta "punto debilak"?**

- "Punto fuertea" irrifarrea dela esaten didate eta "punto debila" irrifarrea baita ere. Barre egiten diot nire buruari askotan, oso ironikoa naiz. Gainera "malaletxe" haundixa daukat, kostatu egiten zait jartzea baina jartzen naizenean, ken daitezela denak paretik! Beste alde batetik,

persona irekia kontsideratzen naiz, ez naiz izar bat kontsideratzen, pertsona normal bat naizelakoan nago.

**- Bibolina dagoeneko hautsez beteta edukiko duzu, ezta?**

- Bai, ez daukat denborarik, gainera nazkatuta bukatu nuen, garai txar batean hasi nintzen. Presio handia nuen, ez zait batere gustatzen inork presionatzea. Oso librea naiz. Presionatzen banauzu ez zaitut berriro aurpegira begiratu.

**- Ez al zaizu Elgoibar gustatzen? Txiki geratu zaizu?**

- Ez zait txiki geratu, ez. Aste guztia Donostian pasatzen dut eta dagoeneko giroa ere bertan dut. Kontzertuetara joatea asko gustatzen zait. Askok mugitzen naiz: kontzertuak gaztetxetan, Txitxarron... Jende asko ezagutu dut irratiaresker. Askotan faltan botatzen dut Elgoibar, hemen arrotza sentitzen naiz, denak ezagutzen naute eta jokoz kanpo gelditzen naiz. Jende askok "que se me han subido los humos" dio baina nire ustez beraien parteko inbidia da. Hori da kontua.

**KOLDO GALDONA**



## Fernando Moreno

### Taxista



● **Hasi zinenetik gaur egunera izan den aldaketa nabariena?** ▶ Duela 14 urte hasi nintzen. Garai hartan lan gehiago zegoen, gaur egun familia gehienetan kotxea dago.

● **Zer moduzkoa izan da 94a?**

▶ Ni ezin naiz kexatu

Osakidetzarentzat egiten baitut lan baina geltokian nahiko urte eskasa izan da.

● **Zer eskatzen diozu 95 urteari?** ▶ Osakidetzan jarraitzea.

● **Nor eramango zenuke debalde zure kotxean?**

▶ Emaztea eta semeak, bai eta lagun bat ere.

● **Eta nori kobratuko zenioke bikoitza?**

▶ Mementuz inori ere ez, ez daukat areririk.

● **Zein da zure ametsetako bidaia?**

▶ Brasilerako joatea, baina turista bezala.

● **Zein bidaia egiteaz zaude asper-asper eginda?**

▶ Eibarko eta aireportuko.

● **Zertan ematen duzu denbora zain zaudenean?**

▶ Irratia entzuten eta egunkaria irakurtzen.

● **Zein berrik alaituko zintuzke?**

▶ Beno, Gabonetako loteria tokatu izan balitzait...

● **Zer moduzkoak dira Euskal Herriko errepideak?** ▶ Ez onak ez txarrak, baina orokorrean hobe daitezke. Autopista garestiegia da.

● **Zein berrikuntza dira beharrezkoak?**

▶ Maltzaga-Urbina doan jartzea, adibidez.

● **Gasolinaren prezioari buruz?** ▶ Guk gasoila erabiltzen dugu; hala ere, gasolinaren prezioa zeruetatik dagoela iruditzen zait.

● **Zer ordaintzen dugu taxi batean, denbora ala distantzia?**

▶ Distantzia, irteeragatik minimo bat dago ezarria eta gero egiten den bidaiaren arabera...

● **Emakumeak bolantean?**

▶ Zoragarria iruditzen zait baina denetik dago. Orokorrean txarrak dira, badaude ondo gidatzen dutenak baina normalean...

● **Ez al duzu uste prezioa merkeagoa balitz jende gehiago ibiliko litzatekeela?** ▶ Bai, baina horretarako beste gauza askoren prezioa merkeagoa izan beharko litzateke: kotxearena, gasoleoarena, zergak... Autonomoak garenez zerga mordo bat ordaintzen dugu.

EDURNE KORTA

## SAN ANTON JAIK

### DOINUA:

Aizak hi mutil mainontzi

Urtarrileko aldatsa  
egiten zaiguna latza,  
oporraldia bukatu eta  
lanaren arantza,  
berriro betiko martxa  
baina ez galdu esperantza,  
San Antonetan egingo dugu  
irri eta dantza.

Festerako afan bizia  
San Anton da aitzakia,  
urtea ondo hasteko hau da  
modu egokia,  
artisautzaren feria,  
pilotak badu tokia,  
festa hauetan izango dugu  
bai, zer ikusia.



JON PELI URIGUEN



**KEMEN**

Belardenda

MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN  
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA  
REFLEXOTERAPIA

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31

JOSE ANGEL ZABALA

**URDAITEGIA**

Berezitasunak:

Bakilaua

Txerrikiak

Merkatu Plaza 33-34

## Santa Klarako kanpaien deia (II)

■ Hona hemen Santa Klarako mojek esandakoaren jarraipena:

1) II. Kontzilio Vaticanora arte:

- Mojaren bat hiltzen zenean, 12 bider errepikatzen ziren heriotz kanpaiak, banaka eta astiro.
- Sute bat zegoenean bi kanpaiak batera jotzen ziren, behar zen denbora guztian.
- Kanpaiak lagungarri izan dira hainbat gizon eta emakumerentzat. Seinale bat, dei bat izan dira kanpaiak, Jainkoaren erromes garela adieraziz. Sor Maria Jesusek esan zigunez, bere gurasoek eguerdiko Angeluseko kanpaiak entzutean, bestelako lanak utzi eta otoitz egiten zuten.
- Monastegiko bizitzari dagokionean, kanpaiekin jaikitzen ziren, otoitzerako deia kanpai bidez egiten zen, bai eta lanerako denbora zein atsedena zehaztu ere.

2) Gaur egun:

- Ostegunetan, meza baino ordu laurden lehenago, kanpai bakarra jotzen da. Igande eta jai berezietan kanpai biak jotzen dira.
- San Bartolome bezperan, eguerdiko ordu 1ean hiru aldiz errepikatzen dira.
- Santa Klara bezperan arratsaldeko 8etan luze jotzen dira eta beste jai ospetsuetan 6,30etan biak

batera eta nahikoa luze.

- Monastegian gaur egun ere jotzen dira esnatzeko, nahiz eta musika ere jartzen duten. Halere ez dira lehen beste jotzen. Alde batetik, bakoitzak ordulari bana duelako eta bestetik, aske eta arduratsu izan nahi dutelako. Mojen esanetan, "egiaz eta izpirituz bizi nahi dugu Ebanjelioa, eta ez kanpaiek behartuta".
- Kanpoko kanpaiak sakristauak jotzen ditu eta barrukoak otoitzaldia zuzentzea tokatzen zaionak.

PELLO ARRIETA




## Juan Salaberria

Musikaria (1908-1936)



- Elgoibarren jaio zen 1908. urteko abenduaren 27an.
- 13 edo 14 urte zituenean Bandan hasi zen jotzen. Bi instrumentu jotzen zituen, kornetina eta friskornoa.
- Bandan jotzeaz gain, txistularia ere bazen. Patxiko Etxeberria, Silvino Gabilondo eta Isaac Azpiazu hirukotearekin batera txistua jotzen zuen kalejiretan eta antzerako aktuzioetan.
- Berbenetan ibiltzen zen Lorenzo Goiarzun eta honen semeekin "Polo Norte" orkestrin. Bandan bezala kornetina jotzen zuen bertan.
- Pako Salaberria korrespontsalaren eta Jacinto Salaberria sakristauaren anaia zen.
- Hil arte jardun zuen musika munduan sartuta.
- Oso gazte hil zen, 27 urterekin, 1936. urteko martxoaren 11n.



**Maria Urizar**

**ileapaindegi  
mixtoa**

Errosario 9-1ezk.  
☎ 74 44 89 ELGOIBAR



San Frantzisko, 9. Tel. 74 13 92

**ELENA**

**ileapaindegia**

**Depilazio Elektrikoa**

San Frantzisko 49-1 tel. 74 11 89

## JOSEBA ETXEBERRIA:

# “Errealian jokatzia zaila da, baina horretarako nago entrenatzen”



Joseba Etxeberria Lizardik bost urte daramatza Errealean. Txikitatik baloiarekiko zaletasuna oso gertutik bizi izan du, etxean bertan; aita futbol jokalaria eta entrenatzailea izandakoa da eta hau baino lehen, aitona. Lehen ostikoak bederatzihamar urte zituela eman zizkion baloiari Club Deportiboan. Orain gutxi, Errealeko ekipo handiarekin hasi da entrenatzen. Bertan jokatzeko txikitako ilusioa betetzen ari dela ikusten du gazte honek. Etorkizun biribileko jokalaria da adituen ustetan; Kodro bosniarraren ordeko izango denaz ere ziur daude. Berak dion bezala, “hori ez dago jakiterik, baina ilusioa ez zait falta”.

**- Sansetik Errealera, alde handia igarri duzu?**

- Bai, joan dan aste osua egon naiz eta aldia badao. Agian ez entrenamenduetan, oinarrian entrenamenduak berdinak dira, baina jendia profesionala dala ikusten dot, eta famosua ere bai.

**- Konbokatu zaituzte ekipo handirako?**

- Ez, nik Errealakin amistosuak jokatu ditzut, hiru uste dut, Eibarren kontra, Logroñesen kontra ere bai... Luis Garcia Mexicora joan zan eta lekua zauanez, haren ordezi hasi nintzan entrenatzen.

Jokatzia gaitza da, baina horretarako nao entrenatzen.

**- 17 urteko gazte batentzat, zer suposatzen du Errealean egoteak?**

- Ilusioa, batez ere. Beti izan da Errealean jokatzia nere ametsa. Oraingo gauzak ondo doaz. Ni oraindik oso gaztea naiz, baina ekipo haundixakin zenbat eta gehixao entrenatu gauzak hobera joango diazela uste dot. 17 urte ditzut eta ez daukat ezertarako prisarik.

**- Ez daukazu azkarregi zoazen inpresioa?**

- Igual bai. Bost urte daramatzat Errealian, eta adibidez, jubeniletan bi urte egon biharrin bat bakarrik egon naiz, zuzenian Sansera pasatu nintzan. Kategoria batzuetan bi ekipo daude eta normalian bakoitzian urtebete egiten da. Infantiletatik kadete haundira pasau nintzan, gero jubeniletako bi ekipoetan urtebete eta gero Sansera. Berez jubeniletan egon beharko nintzan orain. Alde hortatik bai, azkar xamar.

**- Errealian egoteaz gain, selekzioan ere jokatzin duzu.**

- Bai, sub 18an. Aurten eta datorren urtian ere bertan egongo naiz.

**- Zure adinarekin, eta selekzioan.**

- Gipuzkoako eta Euskadiko selekzioetan egon naiz, eta Espainiakoa nago orain. Horrek laguntzen du baina eguneroko lana da inportantiena. Orain Madrilan jokatzin duen Raulekin nago. Haura ere 17 urtekin ekipo haundixan dago.

**- Zenbat aldiz izan zara internazionala?**

- Sub 15ean hasi nintzen selekzioan, guztira, 27 bat partidutan.

**- Toshack eta Iriarte ezagutu dituzu entrenatzaile modura. Alderik?**

- Igarri dotena izan da jendia lasaiago dagoela orain. Galesakin tentsio edo presio handiagoa zegoen. Iriartek beste giro bat eman dio eta hori ikusten da puntu gehixao lortzen ari dala. Nik uste dot onerako izan dala. Agian Galesa tekniko hobia zan baina jendia gusturago dao orain.

**- Jokalari atzerritarrek “itzala” egiten dizute bertokoei?**

- Etxekoentzat zailagoa da leku bat lortzia ekipo batian baina nik ez daukat oraingo arazorik. Uste dot atzerritarrek ekiporako onak diala, horretarako fitxau ditzue!

**- Zure aspirazioak noraino heltzen dira?**

- Nire ametsa Errealian jokatzia da, eta hori lortuko banu etorriko zian gero beste gauza batzuk. Errealian oso gustura nao.

**- Kodrok 28 urte egin berri ditu. Aurten 18 egingo dituzu. Noiz ikusiko zaitugu Errealeko 9arekin?**

- Ez dakit noiz, baina seinale ona izango zan. Berak oraindik kontratua dauka Errealearekin eta faktore asko daude. Gainera nik gauza asko ikasi bihar ditzut oraindik.

## IV. San Anton pilota txapelketako 2. final laurdenak jokatuko dira



**L**agunak Pilota Eskolak antolatuta, afizionatu mailako IV. San Anton Pilota Txapelketa jokatzeko ari da hil honetan. Joan den ostegunean, hilak 5, lehen final laurdenak jokatu ziren honako emaitza hauekin: jubeniletan Arrieta - Larrañaga 22 Matxain - Calles 15. Lau t'erdian edo promesa kategorian, eskuz banakako partiduan Otaegik 18 eta 9 irabaziz Muguruzari, eta nagusien mailan Urien - Almandoz bikotea Artola eta Galarzari gailendu zit-

zaion 22 eta 17ko emaitzaz.

Gaur, hilak 13, beste final laurdenak jokatuko dira gaueko 10etatik aurrera Ikastolako frontoian. Jubeniletan Muruamendiaraz eta Gutierrez, Goñi eta Otxandoren aurka arituko dira. Lau t'erdian Berasaluze VII.aren eta Barberito V.aren arteko lehia ikusi ahal izango da eta nagusien Berraondok eta Raik Olaizola eta Apeztegiaren aurka jokatuko dira ordu eta leku berean.

## Kuadrila Arteko Txapelketako Argazki Rallya

Oraingo ez da lanik aurkeztu 1994ko Gabonetako Kuadrila Arteko Txankakua Argazki Rallyan. Dena den, parte hartu nahi duena garaiz dabil oraindik, argazkiak aurkezteko azken eguna hilaren 14a baita. Edozein neurriko argazkiak, 10x15tik 50x60ra bitartean, zuri-beltzean zein koloretan eta edozein teknikan egindakoak onartuko dira. Argazkien atzean izenburua jarri beharko da. Izenburua bakarrik izango duen sobre batean, aparte, autorearen datuak jarriko dira. Komenigarria da argazkiak euskarri tinko batean, kartulina esaterako, jartzea. Ondoren, argazkiekin erakusketa bat egiteko asmoa dute. Lanak Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dira. Epaimahaia Kirol Teknikariak, Ongarriko presidentek eta Txankakua Merkatarien Elkarteko argazkilari batek osatuko dute. Lehenak garaikurra eta 25.000 ptako saria jasoko du, bigarrenak garaikurra eta 15.000 pta eta hirugarrenak 10.000 pta eta garaikurra.

**AGENDA**

**FUTBOLA** Mintxetan **Larunbata 14**  
**12,00:** Elgoibar - S. D. Eibar (Infantilak)  
**14,00:** Urki - Beti Sutan (2. errejionala)  
**16,30:** Elgoibar - Mutriku (Kadeteak)

**Igandea 15**  
**10,00:** Eibar Urko - Hernani (Jubenilak)  
**12,00:** S. D. Eibar - Aloñamendi (2. errejionala)  
**16,00:** Eibartarrak - La Amistad (Neskak)

**ESKUBALOIA** Kiroldegian **Larunbata 14**  
**16,00:** Pagoaga Elgoibar - Ordizia (Kadete neskek)  
**17,30:** Txankakua Elgoibar - Leizaran (Senior mutilak)

**FUTBITOA** Urasandin **Igandea 20**  
**10,00:** Oraiko - Sanroketarra      Kosakos - G. Garcia  
**11,00:** Dream Team V. - Rua      King-Kong - Replastisa  
**12,00:** Aldavas - La Maxia      D. Kalimotxo - Haritza

**EMAITZAK**

**FUTBOLA**  
Haundi 0 - Durango 2  
Elgoibar 5 - Antzuola 0 (2. errejionala)  
Elgoibar 5 - Lazkao 0 (Jubenilak)  
Almen 0 - Elgoibar 3 (Neskak)  
Aurrera Ondarroa 1 - Elgoibar 2 (Kadeteak)  
Antiguo 3 - Elgoibar 0 (Infantilak)

**ESKUBALOIA**  
Bidebieta 6 - Pagoaga Elgoibar 25 (Kadete neskek)  
Elgoibar 23 - Ereintza 13 (Kadete mutilak)  
Elgoibar 11 - Jauja 8 (Senior neskek)  
Zarautz 22 - Txankakua Elgoibar 20 (Senior mutilak)

**FUTBITOA**  
Sporting 0 - Karkis 3      Mimox 3 - Lucky Luke 4  
Fotero 3 - Tropiko 9  
H. Verboten 1 - B. duro 1      R. Mundo 5 - R. Urbi 4

## PNEUMAX, S.A.:

### Neumatikaren arloko osagaien saltzaileak




Orain dela 18 bat urte Italiako Bergamon kokatutako Pneumax S.R.L. enpresak eta Eibarko Omega lantegiak bat egin zuten. 1976. urtea zen. Comegak makina almatzen modura funtzionatzen zuen ordura arte, makinak saltzen alegia. Gaurregun esan daiteke, automatizazio neumatikoaren arloan 18 urte eman dituztela dagoeneko.

**B**i enpresen arteko harremanak 76an hasi ziren, Comegak Pneumax izeneko balbula eta zilindro neumatikoen distribuzioaren kargua hartu zuenean. 1990ra arte Omega izenarekin Estatu osorako Pneumax etxearen eskusibista modura lan egin zuten. Urte berean Italiako Pneumax etxe zentralarekin bat egin zuten eta izen bereko enpresa filialaren sorrera gertatu zen. Pneumax etxeak Europa osoan zuen distribuzio sarearekin bat egitea zen asmoa. Pneumax-ek Ingalaterran, Frantzia, Austria eta Europako beste herrialde batzuetan zuen erakunde komertzialaren parekoa sortu zen Estatu osorako. 1993ko urtarrilean Eibarko erdigunetik Elgoibarrera aldatzea erabaki zuten, industrialde batean egotea funtsezkoa zelako.

#### Esparru zabala

Pneumax-en neumatikaren arloa lantzen da. Neumatikak, izenaren antzekotasunagatik autoen neumatikoekin erlazionatzeko arriskurik izan arren, errelitatean ez dauka inolako zerikusirik. Aire konprimituarekin lan egiten duten makinenzako osagai edo piezak egiten dituzte, hau da, aire konprimituaren bidez mugimenduak egiten dituzten makinenzat. Piezen fabrikazioa baino, Italiako zentraletik ekarritako piezen sal-



#### ■ ■ 18 urte daramate neumatikan lan egiten.

menta egiten dute. 800 m<sup>2</sup>ko azalerrako biltokia da eta erosketa-salmenta zuzena egiteko aukera ere eskaintzen dute.

Pneumax-ek komertzializatzen dituen piezak (zilindroak, abiadura erregulatzailak, mikrozilindroak, mikrobalbulak, elektrobalbulak...) era guztietako makinenzat fabrikatuta daude, osagai neumatikoak dituzten makinenzat beti ere: erreminta makinak, hutsean ontziratze elikagaien sektoreko makinak, enbaltzeko makinak...

#### Bezeroak

Euskadin ezezik, Estatu osoan zehar ere lan egiten dute. Bezeroen %20 gutxigorabehera kokatzen da bertan, eta gainontzekoak Estatu osoan, Katalunian batez ere. Neumatikaren arloan kompetentzia oso zorrotza omen da, krisi garaian are zorrotzagoa. 92 eta 93. urteak nahiko gogorrik izan dira, Pneumax-en bezero garrantzitsu diren kontserben eta elikagaien sektoreak behera egin duelako. Enpresa txikia izatea abantaila izan da kasu honetan. Dena dela, 94. urtea hobea izan da Pneumax-entzat, produkzio ahalmenaren %90ean ari baitira lanean.

#### ENPRESAAREN FITXA

- ✗ **IZENA:** PNEUMAX, S.A.
- ✗ **SORRERA URTEA:** 1976
- ✗ **SORTZAILEAK:**  
Pneumax S.R.L. eta COMEGA.
- ✗ **ZUZENDARIA:**  
Pedro Maria Perez.
- ✗ **IHARDUERA NAGUSIA:**  
Neumatika.
- ✗ **FABRIKATZEN DITUZTEN PRODUKTUAK:**  
Automatizazio neumatikorako osagai industrialak.
- ✗ **LANGILE KOPURUA:** 8
- ✗ **URTEKO FAKTURAZIOA:**  
200 milioi.
- ✗ **ESPORTAZIOAK %tan:** % 40a
- ✗ **HELBIDEA:** Olaso Kalea 54,  
Olasoko industrialdea
- ✗ **TELEFONOA/FAXA:**  
74 41 44 / 74 40 76

## Astebukaeran hasiko dira San Antonak

Jai giroko astebukaera datorkigu, ekintzaz bete. San Anton jaien bueltan musika kontzertuak, erakusketak, antzerkia, bertso kantaldia, erraldoi eta buruhandiak, haurrentzako parkea... denetarik egongo da ikusgai eta entzungai datozen larunbat, igande, astelehen eta asteartean, adin guztietako jendearentzat gustukoak gainera.

**G**aur bertan, hilak 13, Bederen 1 antzetzaldearen "Errenta" lana ikusteko aukera izango da Herriko Antzokian, gaueko 10,15etatik aurrera. Eman-kizun honetan Euskal Tebistako kamarak saioa grabatzen egongo dira.

### XV Seilu Erakusketa

Larunbatean, hilak 14, Filatelia Elkarteak antolatutako XV. Seilu Erakusketa irekiko da eguerdiko 12etan. Aurten Musika Bandaren 110. urteurrena denez, Bandaren irudia duen mataseilu berezia eskuratu dute Telekomunikazio eta Posta Zuzendaritza Nagusitik. Inaugurazio ekitaldiari hasera emateko, Musika Bandak kalejira egongo du Udaletxetik

Kultur Etxeko erakusgelaraino. Bertan oroigarri bat emango zaie Bandakideei. Eguerdian bazkaria izango dute Filatelia elkartekoek eta ESEBA Filatelia Federaziokoek Baltasar elkartearen eta arratsaldean, ohizko batzar nagusia egingo dute. Ohitura den bezala, posta bulego moduko bat jarriko da erakusketan bertan, hilaren 14an eta 15ean, hain zuzen. Erakusketa hilaren 22ra arte egongo da zabalik eta Frantziatik, Castellonetik, Coruñaetik, El Ferroletik eta Euskal Herriko leku ezberdinetatik ekarritako bildumez gain, musikari buruzko J.A. Lopez donostiarraren eta J.L. Sagastabeitia bilbotarraren bildumak ikusgai egongo dira 90 bat



■ ■ Herriko artisauen lanak ikusiko dira igandean.

bitrinatan banatuta.

### Kontzertuak

Besterik ere ekarriko digu larunbatak. Arratsaldean, haurrentzako buruhandi eta erraldoiak, eta gauean, Herriko Antzokian, bertso jarrien kantaldia Euzkitze eta Mendizabal bertsolariekin eta BAP andoaindarren eta 6NEMEN9 elgoibartarren kontzertua gaueko 11etan.

Igandean, 11,30ak aldera artisauek feria hasiko da Plaza Handian. Herriko artisauen lanak ezezik, kanpotik etorritakoen

eskulanak ere egongo dira ikusgai. Arratsaldean haurrak izango dira protagonista, Plaza Handian beraiantzako jolasak jarriko baitira. Euria egingo balu Kiroldegian jarriko dira. Astelehenean, San Anton bezperan, gaueko 10,30etan, EGAN taldeak dantzan jarriko ditu Plaza Handira hurbiltzen diren guztiak. San Anton egunean goizeko meza nagusiaren ostean Ertzantzaren Bandak kontzertua eskainiko du Herriko Antzokian.

## "Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketak 1994"

### SARI BANAKETA

#### NOIZ

Urtarrilaren 18an  
asteazkena  
Arratsaldeko 7etan

#### EGITASMOA

- IX. Prosa lehiaketako sari banaketa.
- BIHAR Txontxongilo taldea: "Cantervilleko Mamuak".
- XIV. Etxegiña Bertso Paper lehiaketako sari banaketa.

#### NON

Herriko Antzokian

ANTOLATZAILEA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
Kultur Elkartea



LAGUNTZAILEAK:  
ELGOIBARKO UDALA  
GIPUZKOAKO ALDUNDIA



# BERTSO JARRIEN KANTALDIA



Xabier Euskitze eta Mikel Mendizabal  
Pianoa eta orgelokak Alberto Iriondo  
Dantzak: HARITZ DANTZARI TALDEA



ANTOLATZAILEA:  
ELGOIBARKO IZARRA  
KULTUR ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK:  
ELGOIBARKO UDALA  
GIFUZKOAKO FORU ALDUNDIA



## Garajeak

GARAJE BAT saltzen dut, ganbara eta guzti "Anaiak" edifikazioan. Prezio onean.  
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

GARAJE ITXI BAT alokatzen dut Santa Ana 46 zenbakian.  
☎ 74 13 67

## Salerosketak

MENDI ZATI BAT erosiko nuke pinua sartzeko edo sartuta badago ere.  
☎ 75 61 86

AEG markako erropa lehertzeko SEKADORA BAT saltzen da. Berria dago.  
☎ 74 34 06

Randy markako PATIN BATZUK (bi errobera aurrean eta bi atzean) saltzen dira. 37 tailakoak. 4.000 pta.  
☎ 74 17 60

ARGAZKI KAMARA BAT SALGAI. Yashica 108 Reflex Multi/Program 35-70 Zoom. Flash-a eta funda opari gisa. Egoera oso ona eta prezio oso merkea.  
☎ 74 18 61

VOLKSWAGEN GOLF GTI 16V. (SS-AF) SALTZEN DUT. Prezio interesgarria.  
☎ 74 42 59 Jose Mari

"Silver Cross" markako KOTXE KAPOTA BAT saltzen dut. Oso ondo dago.  
☎ 74 11 28 Juani  
☎ 74 20 77 Gloria

NINTENDO KONSOLA ETA 6 JOKU saltzen ditut. Prezio onean.  
☎ 74 13 97  
8,30etatik aurrera

Desmontatu daitezkeen APAL METALIKOAK saltzen dira. Egoera onean.  
☎ 74 01 75

Castellano estiloko LOGELA BAT saltzen dut. Ohea, 1'35; armaria, bi mahaitxo eta tokadorea ispiluarekin.  
☎ 74 17 60 / 74 34 01 Iñaki

Ordenadorerako MAHAI BAT eta balkoirako ZAPATERO ARMARIO BAT saltzen ditut. Berri berriak. Fondoa 45 zm., Altuera 1,40 m. eta zabalera metro bat.  
☎ 74 34 86

## Etxebizitzak

ETXEBIZITZA BAT alokatuko nuke.  
☎ 74 14 63

LOKAL BAT daukagu alokatzeko Ermuaranbiden 16 - 2. solairua. 325 m<sup>2</sup>.  
☎ 75 19 44 Mari Luz

## Lana

Mutil euskalduna aste osorako EDOZEIN LAN EGITEKO eskeintzen da. Gidatzeko karneta B1.  
☎ 74 23 30 Josu

HAURRAK ZAINDU edota ETXEKO LANAK egiteko prest nago.  
☎ 74 41 75 Txari

OHoko irakasle eta Ingenieritza tituloak ditut eta PARTIKULARRAK EMATEN DITUT.  
☎ 74 01 48 Alazne

Ingelesa ikasi nahi duen NESKA BAT behar dugu haurrak zaintzeko LONDRESEN ELGOIBARKO FAMILIA batean. Apiriletik aurrera  
☎ 74 08 17

PEDAGOGIAN lizentziatuak eta 6 urteko esperientziarekin, OHO eta REMeko klase partikularrak ematen ditu euskaraz zein gazteleraz. Maite.  
☎ 74 39 24

PSIKOLOGIAN LIZENTZIATUA naiz eta OHoko klaseak ematen ditut. Emaizta onak.  
☎ 74 14 14

HAURRAK ZEIN NAGUSIAK ZAINDUKO NITUZKE. Etxeko lanak egiteko ere prest nago.  
☎ 74 21 88 Pilar

## Bestelakoak

Urtarrilaren 9an, Maalako iturriaren ondoan, MOTXILA BAT galdu nuen. Barruan Hiztegia 2000 zuen.  
☎ 74 24 43 Koro

URREZKO IDENTITATE PULTSERA BAT galdu dut. "Iciar" jartzen du.  
☎ 7418 06

P. Muguze eta King-Kong artean BELARRITAKO BAT GALDU NUEN. Perla urdin bat du.  
☎ 76 02 33

BELARRITAKO BAT galdu nuen abenduaren 8an. Lazo forma dauka eta erdian perla zuri bat du.  
☎ 74 19 71

Perla urdinak dituen PULTSERA BAT galdu dut. Aurkitzen duena saritzeko prest nago.  
☎ 74 05 74 Maite

CARITASek UMEENTZAKO KOTXESILLA BAT behar du.  
☎ 74 15 09  
☎ 74 12 57

## PREMAZKO TELEFONOAK



### OSASUNA

Anbulategia:  
Larrialdiak.....461111  
Txanda hartzeko.....743354  
Planning .....742950  
Alkoholiko Anonimoak..740385  
D.Y.A (anbulantzia) ..464622  
Gurutze Gorria.....743864  
Mendaroko Ospitala.756264  
Drogomenpekotasun Z.741008  
Odol Emaileak .....743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak.....740442  
PESA (Eibar).....112131  
Taxi Geltokia.....740898

### UDALA

Euskara Zerbitzua.....744366  
Kirol Zerbitzua .....744415  
Kultura Zerbitzua.....742158  
Mendaroko Udala ....756100  
Ongizate zerbitzua...743736  
Udaletxea .....741050  
Udaltzaingoa .....741394

### BESTELAKOAK

Caritas .....740142  
Elgoibarko Izarra.....741626  
IMI.....741196  
Kontsumo Bulegoa ...743088  
Liburutegia .....743525  
Musika Eskola .....742145  
Mintxeta .....744315  
Parrokia.....740842  
Poliroldegia .....741361  
Postetxea.....741547

### HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza...740296  
Zaharren Biltokia.....740526

### IKASTETXEAK

Herri eskola.....74 08 79  
I.M.H. ....74 41 32  
Institutua .....74 02 67  
Ikastola .....74 44 41  
L.H.I.....74 44 80  
Pilar Ikastetxea .....74 13 31

### KOMUNIKABIDEAK

BARREN.....74 41 12  
El Diario Vasco .....74 40 73  
El Mundo .....74 22 67  
El Correo Español...74 10 82  
Egin.....11 84 21  
Deia .....74 11 57  
Zazpiki .....74 34 74



## OSTIRALA

### 22,00 IV. SAN ANTON PILOTA TXAPELKETA

✓ Ikastolako frontoian  
Antolatzailea: Lagunak Pilota Eskola

### 22,15 ANTZERKIA

"Bederen 1" taldeak *Errenta* obra eskainiko du.  
✓ Herriko Antzokian

## LARUNBATA

### 12,00 SEILU ERAKUSKETAREN AURKEZPENA eta BANDAREN KALEJIRA

Bandaren 110. urteurrenaren omenez.

✓ Kultur Etxean  
Antolatzailea: Filatelia Elkarte  
Hilaren 22ra arte

### 16,30 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK

### 21,00 ELGOIBARKO I. BOLO TXAPELKETA

(Bigarren tiraldia)  
✓ San Migelen

### 22,30 BERTSO JARRIEN KANTALDIA

Bertsolariak: Xabier Euzkitze eta Mikel Mendizabal.  
Pianojolea: Alberto Iriondo.  
Dantzak: Haritz Dantzari Taldea.  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

### 23,00 ROCK KONTZERTUA

BAP eta 6NEMEN9  
✓ Maalan

## IGANDEA

### 10,00 GIPUZKOAKO ESKOLARTEKO KROSA

✓ Mintxetan  
Antolatzailea: Txankakua-Mintxeta Atletismo Eskola

### 11,30 ARTISAU FERIA

✓ Plaza Handian

### 16,00 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza Handian  
(euria egingo balu Kiroldegian)

### 16,30 ZINEA

"Mano a mano con papa"

### 19,30-22,15 ZINEA

"El especialista"

## ASTELEHENA

### 22,30 DANTZALDIA

EGAN taldea  
✓ Plaza Handian

### 22,15 ZINEA

"El especialista"

## ASTEARTEA

### SAN ANTON EGUNA

### 11,00 MEZA NAGUSIA

✓ San Bartolome parrokian

### 11,00 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza Handian

### 12,30 ERTZANTZAREN BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

### 16,00 HAURENTZAKO PARKEA

✓ Plaza Handian

### 16,30 ZINEA

"Mano a mano con papa"

✓ Herriko Antzokian

### 19,30-22,15 ZINEA

"El especialista"

✓ Herriko Antzokian

## ASTEAZKENA

### 19,00 ELGOIBARKO IZARRA IDAZ-LEHIAKETEN SARI BANAKETA

✓ Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra

## OSTEGUNA

### 9,00-12,00-19,30 ZINEA

Irudi Biziak: "A quien ama Gilbert Grappe?"  
Ertainetako ikasle eta gurasoentzat.  
✓ Herriko Antzokian

## OSTIRALA

### 22,15 ZINEA

"Junior"

## txandak

### FARMAZIAK:

14, larunbata: Etxeberria  
15, igandea: Etxeberria  
16, astelehena: Bidasolo  
17, asteartea: Bidasolo  
18, asteazkena: Bidasolo  
19, osteguna: Bidasolo  
20, ostirala: Yudego

### OKINDEGIA:

15, igandea: FOTERO  
17, asteartea: BOUTIQUE DEL PAN

## ZINEA

### "EL ESPECIALISTA"

Ray Quick izeneko heroi bakarti, ximel eta betiluna "El especialista" da. Leherkariak jartzen da espezialista, eta hauen gaineko jakitura ia naturaz gainekoa dela esan daiteke. Iragan korapilotsua duten tipo gogorrek bezala, sexu mailan ere harreman nahiko korapilotsuak ditu, bera bezain bakartia den emakume bat ezagutuko duelarik.